Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

233 zenbakia
2022 **martxoa**

Prest!

BERBETAN: **IÑIGO LEKUE** ATHLETICEKO JOKALARIA

ERREPORTAJEA: **BAZEN GARAIA DEUSTUKO JAIAK GANORAZ OSPATZEKO!** BARKUA: **UGERREN ZIKLO BERRIA**

TOKIKOM

29-230-231-232-233

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu Ikastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

DEUSTUKO IKASTOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

ELORRI BERTSO ESKOLA

eaj pnv deustu

S.D. DEUSTO

ehbildu

zirikatzen!

DEUSTUKO GAZTE ASANBLADA

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI KATEAK

Bilbao

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

BASKale

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

233 zenbakia
2022ko martxoa

aurkibidea

Atxarte Salvador Navarro - Angel Prieto Fidalgo	**Iritzia**	4
Sandra García Zurita	**Gurera etorriak**	5

erreportajea
Bazen garaia Deustuko Jaiak ganoraz ospatzeko!

Amaitu dira jaiak eta ohi den bezala balorazioa egin eta datorren urteko jaietarako zer hobetu eta zer errepikatu erabakitzeko unea heldu da. Zinez eskerrik asko Deustuko kaleak alaitzen eta girotzen lagundu gaituzuen eragile, auzokide, elkarte eta kuadrilla guztiei.

6

San Inazio eskola	**Eskolak**	10
Deustuko euskarazko kronikak eta euskararen galera	**Behin batean**	12
Ibarrekolanda BHI-k batxillergo artistikoa mantenduko du	**Artikulua**	14

berbetan
IÑIGO LEKUErekin

Umea zenetik baloiari ekin dio Iñigo Lekuek Danok Bat taldean. Bertan nerabezaro osoa igaro eta 18 urterekin Athleticeko hirugarren taldera heldu zen. Hiru denboraldi geroago ametsa bete eta Superkopa irabazi zuen lehen taldearekin egindako debutean. Hala ere, dena ez da futbola, lana beste zaletasun batzuengatik aldatzen baitu etxera heltzerakoan.

16

Hijos de Agustin Cortadi y Cia (1905)	**Irudiak berbetan**	21

KORRIKA Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, badator korrika!

KULTURA Ugerren ziklo berria

NUTRIZIOA Osasuna bere osotasunean

KULTUR TXOTX Dafne Gonzalez Villar eta Garazi Karrera Lopetegi

barkua bete herba

24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga, Pablo Martinez Canibe.
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura.
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800

Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrunbiloan

Jaiak eta gauak gureak izan behar dira

Segur aski askok Bilboko Zazpi Kaleetako taberna ezagun bateko nagusiaren kontrako salaketaren berri izango duzue, emakume batek mendekotasun kimikoa baliatuz bortxatu zuelako salatu zuen. Ordutik, alde zaharreko feministak salaketari oihartzuna ematen saiatu dira, eta ez omen da jaso duten salaketa bakarra, inondik ere. Aurretik, Estatuko zenbait ospitalek datu oso esanguratsuak argitara atera zituzten, alarmak piztu nahirik. Estatuko Justizia Ministerioaren arabera, azken bost urteetan hiru sexu-erasotik bat "biktima sumisio kimiko egoeran dagoela" gertatu da, alkoholaren, drogen edo beste substantzia batzuen eraginez, baina datu horiek "icebergaren punta baino ez dira". Biktima gehienak neska gazteak dira. Ez daukagu Euskal Herriko datu zehatzik, baina badakigu hemen ere geratzen ari dela.

Beraz, batetik, jaiak bueltan direla (Deustukoak aitzindari), ezinbestekoa dirudi jai batzorde eta herri mugimenduko eragile guztiek, ostalariek eta abarrek, protokoloak eta neurriak eguneratzeak. Bestetik, erakundeek beste horrenbeste eta gehiago egin beharko lukete, fenomeno berri honi neurria hartu eta neurriak hartu, hain zuzen. Sexu erasoen biktimei hutsunerik ez izatea eskatzen zaie, kontaketan inkongruentziarik eta nahasterik ez egotea… zer egin dezakezue sumisio bidezko erasoen biktimak babesteko? Azkenik, Euskal Herriko Mugimendu Feministari, herri honetako txoko guztietara heltzen den antolatutako emakumeen sareari, alegia, gai hau bere jo puntuan jar dezan eskatu nahi nioke, beste inork ezin baitu hainbeste indar bildu aurre egiteko.

Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria

Arangoiti Ukraina laguntzen

Ideia Arangoitiko bi neba-arrebek izan zuten halako larunbat batean. Autoa hartu eta astelehenean Poloniara joatekoak ziren premiazko baliabideak eramatera eta bide batez, bertako errefuxiatu batzuk ekartzera. Haien helburua betetzeko laguntza ekonomikoa senide eta lagunei esker lortu zuten.

Eta auzoko askok ere lagundu nahi izan zuten. Dirua biltzen hasi eta ordu gutxira konturatu ziren lau furgoneta eramateko beste jasoa zutela. Beraz, lau mila euro inguru bilduta, martxoaren 10ean, lau furgoneta atera ziren Bilbotik Katowicerantz (Polonia).

Bertan premiazko produktuak utzi (fardelak, elikagaiak) eta Ucrania SOS elkartearen errefuxiatuak jasotzeari ekin zioten asteburuan. Azkenean, 24 errefuxiatu ekarri zituzten Bilbora. Orain beste bidaia bat antolatzen ari dira. Horrelako ekimenen berri izateak izugarri pozten nau.

Gertaera trajikoen aurrean, hurbileko jendea laguntzeko prest dagoela jakitea harro egoteko modukoa da. Eskerrik asko guztioi! Gidariok, ez hartu arriskurik, hartu patxadaz.

Sandra García Zurita

Jatorria: Malaga
Bizitokia: Deustuko Erribera

Testua: Nerea Olaziregi

“Erribera maite dut, asko hazi naiz hemen eta oso eskertuta nago izan dudan harreragatik”

Gizarte hezitzailea da eta duela hiru urte etorri zen itsu-itsuan Malagatik Euskal Herrira. 28 urte zituen eta hemengo mugimendu sozialak erakarri zuen. Oso andaluziarra sentitzen den arren, Deustuko Erriberarekin sustraituta sentitzen da.

Zerk ekarri zintuen Erriberara?
Lan kontuengatik etorri nintzen. Itsu-itsuan atera nintzen Malagatik. Gizarte hezitzailea naiz eta entzunda nuen Bilbon arlo soziala oso indartsua zela. Karrerako lagun batekin hitz egin nuen, berak masterra egin zuen hemen eta etortzera animatu ninduen.

Aurkitu duzu espero zenuena?
Banekien hemen hazi egingo nintzela eta, egia esan, bete egin dira nire itxaropenak. Hasieran, egokitzapena apur bat zaila izan zen. Ez nuen nire ikasketekin lotutako lana aurkitu eta denda batean lan egin behar izan nuen, baina poliki poliki nire espazioa aurkitu nuen. Desgaitasuna duten kolektiboarekin lanean hasi nintzen, eta orain Afrikatik datozen adin txikikoekin nago Muxikako zentro batean.

Zertan datza zure lana?
Adingabeak laguntzen ditut hainbat arlotan.Beraien hemengo familia gara. Maila emozionalean ahalik eta hobekien egoteaz arduratzen gara. Hemen ere integratzea da helburua.

Eta lanik egiten ez duzunean?
Eskalatzea gustatzen zait, zirkura joaten naiz... Maríak, hemengo auzokide batek, Karola zirkoan parte hartzeko aukera eman zidan eta asko gozatzen dut.

Gustura al zaude Erriberan?
Maila pertsonalean asko hazi naiz hemen. Denetarik daukagu. Kulturalki gauza asko eskaini dizkidan lekua da. Oso ondo hartu nauten auzo-komunitate bat daukat. Hasiera-hasieratik, oso harrera ona izan nuen, eta bizilagunek asko zaindu ninduten. Oso eskertuta nago.

Malagara itzultzeko tentazioa izan duzu?
Oraingoz ez. Denok dugu sustraitze moduko bat gure kulturan eta bizimoduan. Baina hemen beste gauza batzuk ikasi ditut, behingoz aspalditik sentitzen dut nire sustraiak hemen daudela. Baina tira, ez dago jakiterik. Noizean behin, faltan botatzen dut Malaga, batez ere bertako eguraldia.

Bisitan joaten zarenean zer sentitzen duzu?
Oso andaluziarra sentitzen naiz nire bizitzan baina hara noanean sentipen kritikoa dut. Hemen uste dut borroka soziala askoz ere indartsuagoa dela eta han aurrera pausu batzuk eman diren arren, gai jakin batzuen inguruan -emakumea adibidez-, asko dago egiteko. Nire herria apur bat gehiago altxatzea eta espiritu kritiko handiagoa izatea gustatuko litzaidake.

Etorkizunerako planak dituzu?
Helburu asko ditut. Orain-txe Gestalt terapia lantzen hasi naiz, terapia psikologiko mota hori lan egiten dudan kolektiboari aplikatu ahal izateko baina ez nabil etorkizunari begira gehiegi, egunerokoan inprobisatzen ari naiz.

BAZEN GARAIA DEUSTUKO JAIAK GANORAZ OSPATZEKO!

Amaitu dira jaiak eta ohi den bezala, balorazioa egin eta datorren urteko jaietan zer hobetu eta zer errepikatu erabakitzeko unea heldu da. Zinez eskerrik asko Deustuko kaleak alaitzen eta girotzen lagundu gaituzuen eragile, auzokide, elkarte eta kuadrilla guztiei.

Testua: Deustuko Jai Batzordea, Deustuko Kuadrillak, Deustuko Gazte Lokala, Bihotz Alai, Pare Deustuko Gazte Talde Feminista, Deusto Bizirik
Irudiak: Deustuko Jai Batzordea eta Iker Garcia Millan, Pedro Aboitiz

Ez gara esateaz nekatuko Deustuko Jai Batzordea auzoko eragileek, merkatariek, kuadrillek eta elkarteek osatzen dutela, eta aurtengo jaietan ere horrela baieztatu ahal izan dugu. Ez da lan makala, ordea, bi asteburuko egitaraua prestatzea eta esan behar dugu ezinezkoa litzatekela halako jaiak antolatzea hurrengo lerroetan aurkituko dituzuen eragileen laguntza jaso gabe.

2019an elkartu ahal izan ginen denok azkenekoz plaza edota frontoi baten inguruan eta azken bi aste hauetako ekintzetan izandako parte hartzeak argi uzten du hiru urte hauek luze egin zaizkigula, inoizko parte hartzerik handiena izan baita eguneko ekintza guztietan. Deustuko Jai Batzordearen mahaia osatzen dugun eragileok abenduan hasi ohi gara martxoko jaiak antolatzen. Aurten, pentsa dezakezuen bezala, lan bikoitza egitea egokitu zaigu, auzoko plaza bakarraren erdia soilik erabilgarri izan baitugu antolatutako ekintza guztietarako. Beraz, “sudoku” polita izan da ordu berean eta leku berean programatutako hiruzpalau ekintzek bata bestea ez zapaltzea lortzea, ezta? Plaza erdia izateak auzoko beste txoko batzuk deskubritzeko parada eman dio batzordeari. Horren adibide da artisautza merkatua plazatik Iruña kalera lekualdatu izana. Edota karaoke ibiltaria taberna batetik bestera mugitzen

ibili izana. Azkenik, txosnagunean bi asteburuetan izandako eraso matxistak berriz ere gaitzetsi nahi ditugu. Deustuko Jai Batzordeak antolatzen dituen espazioak seguruak izateko antolatzen ditugulako eta nekatuta gaude esateaz jai giroan, kalean, auzoan eta edonon emakumeok seguru sentitu nahi dugula. Halaber, kasu honetan txosnagunea denontzako espazioa den heinean, denon ardura izan beharko luke erasoei aurre egin eta erantzutea.

Deusto Bizirik

Deusto Bizirik, Deustuko merkatarien elkarteak, auzoko jaiei buruz egindako balorazioa hitz gutxitan laburbil daiteke: “Ezarritako helburuak bete ditugu!”. Gure ekarpenaren zatirik funtsezkoena auzoko ostalaritzan egindako 26 kontzertuak izan dira, gure kaleetara animazioa eta giro ederra eraman dutenak. Gainera, Munabi Kirol Elkarteak antolatutako eta auzora hainbeste jende ekartzen duen Herri Krosean ere parte hartu dugu. Esan dezakegu gozatu ederra izan dela guztiontzako Deustuko Jaiak behingoz ospatu ahal izatea. Amaitzeko, inauterietan ere ikusi genuen bezala, herritarren parte hartzea zoriontzekoa izan da.

Emakumeen aurreskua.

Mendi Martxa.



Deustuko Herri Krosa.

Deustuko Gazte Lokala

Deustuko Gazte Lokalean ere jaiak oso sutsu bizi izan ditugu. Gurean hurrengo artistek izan dute euren lanak aurkezteko aukera: Brutality Sound System, Sustraidun Youths, Marlik, Dekot, Yakintza, Perlata, Helltzales eta DJ Muble. Gainera, ohitura den bezala "Bertsio gaua" berreskuratu dugu, non bai auzoko zein kanpoko jende asko etorri da eszenatokira igotzeko gogoz. Zalantzarik gabe, musikaz eta giro onaz beteriko bi asteburuak izan dira.

Nola ez, emanaldi hauek aurrera ateratzeko auzolana eta autogestioa ezinbestekoak izan dira, eta zabaltze bai tekniko zein pertsonalak eman dira suspertzen ari diren talde hauek ezagutzera emateko. Argi geratu da Deustuko Gazte Lokala Deustuko Jaietako gune oso garrantzitsua dela, kulturaz, musikaz, parrandaz eta xarmaz beteta!

Havana 537 kontzertua, jaietako azken igandean.

Mikeldi Dantza Taldearen ekitaldia.

Kuadrillen bajada, jaietako lehen ostiralean.

Deustuko Kuadrillak

Kuadrillek jaiak behar dituzte, jaiek kuadrillak behar dituzten bezala. Jaiak urteko unerik garrantzitsuena dira guretzako, eta azken urteko egoerak baldintzatu gaituen arren, gure helburu eta asmoekin aurrera jarraitu dugu. Deustuarron elkargune izan gara, harremanak saretu ditugu eta laguntasun berriak egitea lortu dugu... Orain merezitako atsedena guztientzat, etorkizun hurbilean indarberritu eta gogo gehiagorekin bueltatzeko. Adi hurrengo datei! Katxiporreta zein Jimenotar, denok deustuar!

Euskararen Etxea
Zatoz!
www.euskararenetxea.eus

Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81
E-posta: **info@euskararenetxea.eus**
Metroa: **San Ignazio** > Lekeitio Irteera.

PARE
Deustuko Gazte Talde Feminista

Jai herrikoiak guk, auzokideok, egiten ditugu posible. Elkarlanean, asko gara gelditu gabe lan egiten dugunok, jaiak herritik eta herriarentzat eraikita.

PAREko kideok beti izan gara jai herrikoien defendatzaile sutsuak. Sareak eraikitzeko, kolektiboan lan egiteko, sortzeko, kalearen erabilera publikoa eta anitza aldarrikatzeko eta harremantzeko era osasuntsuak bultzatzeko espazioak bultzatzen dugun bitartean, pertsonen arteko elkar zaintza, beste behin ere, erdigunean jarrita.

Zoritxarrez, aurten, hainbat eraso gertatu dira gure kaleetan. Berriro ere erasotuak izan gara, arlo publikoan, denontzako seguruak izan beharko litzatekeen espazioan. Eta nazkatuta gaude!

Lanean jarraituko dugu gure jaiak parekideak eta feministak izateko, zaintzatik eta autodefentsa feministatik. Gora jai herrikoi parekideak!



Egondako erasoak salatzeko ekimena txosnagunean.

STR taldearen kontzertua txosnagunean.

Emakumeen aurreskua.

7Kale & Lylo kontzertua Done Petri plazan.

Pilota partidako finala.

Bihotz Alai dantza taldea eta Ondalan

Urtero dantzatu da Bihotz Alai Deustuko Jaietan, Euskal Herriko folklorea hedatzeko asmoz. Taldekideentzako, egun polita da, ikasitakoa plazaratzeko aukera baitute. 1999tik egin den bezala, Deustuko herriak bere aurreskua mantendu du aurten ere. 22 andre plazan elkartu ziren txistulari eta atabalariaren doinuekin dantzatzeko, eta bertan elkartu zen hainbat eta hainbat deustuar haiekin gozatzeko. Hori baino lehen, California Gozotegiaren jabea izandako Eduardo Perez omentzeko geldiunea egin zuen Alkatearen kalejirak, urtetan Aurreskuaren txokolatinak dohainik egin izana eskertzeko. Ondalanen ekitaldia igande goizean izan zen. Denak egon ziren irteeran gure herriko Erraldoien dantzak kalez kale ikusteko zain.

SAN INAZION, HAR DEZAGUN EUSKARAREN OLATUA!

Ikasturte honek berrikuntza bat ekarri du San Inazio eskolara: euskara batzordea sortu dugu. Batzorde honen helburu nagusia eskola euskalduntzea da, eskola-komunitate osoari garrantzia emanez. Gaurko egunez, batzordea 4-5 gurasoek eta 2 irakaslek osatzen dute. Maiztasunez biltzen gara eta ikasturte osorako ekintzak prestatu ditugu.

Testua eta argazkiak: San Inazio eskola

Besteak beste, aurten, euskararen aldeko kanpaina desberdinak egiten ari gara. Lehenengo hiruhilekoan, berotzeko asmoarekin, "San Inazion har dezagun euskararen olatua" dinamika eraman genuen aurrera.

Ikasle, irakasle zein familiak euskararen surflariak bihurtu ginen. Eskolan ekintza desberdinak burutu ziren (pertsonaia ezkutua, euskara neurketak…) eta amaiera eman genion euskararen egunean. Abenduaren 3an, arratsaldez, gurasoekin batera, umeentzako ekintzak antolatu genituen Levante Plazan, euskara eskolatik auzora ateratzeko asmoarekin.

Ipuin kontalariak, txapa tailerra eta eskulanez gain, musika eta txokolatada ere egon ziren! Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, umeek primeran pasatu zuten eta giro polita sortu zen helduen artean ere.

Orain, inauteriak igarota (gaia "itsasoa" aukeratu genuen, euskara kanpainarekin bat eginez), olatutik tsunamira igaroko gara eta "Badator euskararen tsunamia" dinamikarekin hastear gaude. Ekintza erakargarriak prest ditugu jada eta Korrikari ere garrantzia emango diogu. Apirilaren 6an, auzotik Korrika pasatzen den egunerako, euskara batzordetik arratsaldeko plana



prestatzen ari gara, ezin duzu galdu! Batzordean guraso euskaldunek parte hartzen badugu ere, pausuak eman nahi ditugu familia ez-euskaldunak euskarara hurbiltzeko eta euskararekiko jarrera aldatzeko.

Horretarako, gurasoentzako euskara ikastaro laburrak antolatu nahi ditugu; esaterako, jolasak edota abestiak ikas ditzaten gero haien seme-alabekin jolasteko. Eskola Publikoko jaira joateko ere familiak erakarri nahi ditugu eta horretarako baliabideak eskaini (autobusa antolatu, taldea sortu elkarrekin joateko...). Honekin lotuta, elkar ezagutzeko txango edota ibilaldiren bat ere antolatzeko asmoa dugu, "eskolan pila bat familia euskaldun daudelako eta ez garelako elkar ezagutzen". Erronka handiak ditugu aurretik, oraindik ere asko falta zaigu San Inazio eskola eta auzoa euskalduntzeko, baina euskara batzordetik gogoak eta lanerako indarrak ditugu.

Guztiok elkarrekin, lortuko dugu!

DEUSTUKO EUSKARAZKO KRONIKAK ETA EUSKARAREN GALERA

1914ko martxoaren 20an argitaratu zen Deustuko lehenengo kronika euskaraz prentsan. Ibarrekolanda ezizeneko batek sinatu zuen. Astegarrenean bigarrena plazaratu zuen egile berak, aurrekoari segida emanez. Euskara suspertu nahi zuen Deustuan eta hura abertzaleen eginbeharra zela gaineratu zuen: "gaurtik aurrera, orain arteko burubagekerijak itxi, ta euzkerearen aldez lan egiten asi biarr dogu".

Testua: Hektor Ortega

Deustuko Udaletxea 1894ko ekitaldi baten. Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma.

Lehenengo euskarazko kronikaren berri orain dela bost urte eman genuen (Prest! 176, 2017ko urtarrila). Euzkadi egunkariak gehiena gaztelaniaz argitaratu arren, bazuen euskal atala, Ebaristo Bustintza *Kirikiño*ren gidaritzapean. Hor hasi ziren herrietako kronikak agertzen, lekuan lekuko korrespontsalek bidalitakoak. Hor azaldu zen, esan legez, 1914ko martxoaren 20an, Deustuko lehenengo albistea. Testu luzetxoa zen hura eta euskararen galbidea zekarren hizpide. Egileak, *Ibarrekolanda* ezizenez, jauntxoei (gutxienez XIX. mendearen amaieratik herria nahieran gobernatu zuten Zubiria, Ibarra eta enparauei alegia) leporatu zien erantzukizuna, baina, gaineratu zuen, abertzaleek bazuten ardura, bera ere abertzalea zen arren. Astegarrenean, martxoaren 27an beste idazki bat argitaratu zioten *Ibarrekolanda*ri, eta, argi eta garbi, aurrekoan jorratutako gaiari jarraipena ematea zeukan helburu. Gordin ekin zion bere testuari, ahoa zabal-zabalik esanez esan beharrekoak: "Ondo dakit nik, Deusto'ko mutil gaztiok ezingo dabezala irakurri (leidu) emen idazten (eskribitzen) dodazan gauzatzubak, euzkeraz extakije-ta". Lehenengozhistorian, gazte erdaldun hutsak ziren Deustukoak. Hizkuntzaren langa zein adinetan jarri behar zen ere zehaztu zuen: "baña bai-dakit be, be-

rrogei urte ingeruko gixon eldubak, irakurri ta ulerrtuko dabezala gauzatxu onek, eta orrexegaitik idazten dot; emengo euzkeldunak, beti errderaz irakurrten ibilli barik, noz-edo-noz euzkeraz irakurrten asi deitezan".

Beraz, bere lehenengo idazkian esan zuenari berretsiz, 1876-1880 urte bitartean jarri zuen Deustuko euskararen galeraren hasiera. Alegia, bigarren karlistada amaitu eta foruak kendu ostean. Gero eta gehiago dira gure herrian euskararen katea hautsi zuen unea 1875-1900 bitartean kokatzen duten lekukotzak. Eta beste kontu bat: *Ibarrekolanda*k gizonak aitatu zituen. Emakumeen kasuan ere berdin? Hala dirudi.

*Ibarrekolanda*ren ustez, Deustuko abertzaleek ez zuten ezer egin euskararen alde: ez zieten lagundu euskara zabaldu nahi zutenei, are gutxiago langintza horri ekin. Eta abertzaleen artean ere hizkuntzaren transmisioa galduta omen zegoen: "errderaz itz egiten ba-dogu, geure semiei errderaz irakasten ba-dautsegu euzkerea irakatzi biarrian, errdelduntzat arrtuko gaitube, ta beti egongo da, geure aberri au, errdeldunen bustarr pian".

Kronikariaren aburuz, abertzaletasuna benetan zer den jakin ezak eragin zuen abertzaleen euskararekiko axola falta hura. "Aberrtzaletazuna zer dan ez jakitiak eragin dausku geure gurasuen elia ezetsi, ta erri arrotzaren berrbetia ontzat artu, ta geure-geuriaren aurrez erabiltia.

Orixe da ba, geure arerijorik zitalena: abertzaletasuna zer dan ez jakitia". Eta jarraian, abertzaletasuna zertan datzan azaltzeari ekin zion, luze eta zabal.

Azalpena honelaxe biribildu zuen *Ibarrekolanda*k: "Au euki egixu beti goguan euzkaldun ona: zeure aberrija maite dozula esan arren, eta bere aldez (fabores) itz asko ta didarr gogorrak bota arren, bere gauza gustijak, bere ele edo berrbetia, bere ekandu edo kostunbriak, bere lagijak eta enparau gauza gusti-gustijak maite ixaten ezpa-dozuz, etzarala ixango benetako aberrtzalia; ezingo dozula zeure buruba aberrtzaletzat etzi".

*Ibarrekolanda*ren bigarren kronika honek atal gehiago aginduz amaitu zuen: "Urrengo idazkijan atzalduko dautzudaz banan banan geure aberrijaren agerrkunak. Agurr ba maitia ordurarte". Oraingoz ez dugu aurkitu jarraipena, baina bila gabiltza. 2017an esan genuen bezala, ez dakigu *Ibarrekolanda* nor izan zen. Badakigu, ostera, euskaraz ederto idazten zuena, kronikatik hartu ditugun zatiek erakusten duten bezala. Jarraituko dugu bere nortasunaren eta idazkien bila. Agur ba, maitiak!



EUZKO ABENDAREN ELEZ

Deusto'tik

Agurr, iralurrle maite ori: Atzegin ixango yatzula-ta emen natorrkixu barriro be geure gauzatzaz, edo geure gauzen gafio iz egitera.

Ondo dakit nik, Deusto'ko mutil gazfiok ezingo dabezala irakurri (*leidu*) emen idazten (*eskribitzen*) dodazan gauzatzubak, euzkeraz extakije-ta; baña baí-dakit be, berrogei urte ingeruko gixon eldubak, irakurri ta ulerrtuko dabezala gauzatxu onek, ta orrexegaitik idazten dot; emengo euzkeldunak, beti errderaz irakurrten ibilli barik, noz-edo-noz euzkeraz irakurrten asi deitezan.

Geure elia, geure *berrbetia* basterrtuta aurrkitzen zala, ta geure ele maite onen gaitze onetan errurik asko ixan dogula guk abertzaliak, esaten neutzun lengo dazkijan, lengo *kartan*, ene irakurrle maite ori. Tamala da; baña, erru gogorra xan dogula autorrtu daigun.

Ezkara iñoz bez asi geure ele ederr au abaldu diarr dogula-ta, lan egiten; bere agaritasuna erakusten dabiltzan aberrtzae zindubei ertautsegu iñoz bez geure la-

tzalia; ezingo dozula zeure buruba aberrtzaletzat etzi.

Urrengo idazkijan atzalduko dautzudaz banan banan geure aberrijaren agerrkunak. Agurr ba maitia ordurarte.

IBARREKOLANDA.

Movimiento Católico

Ha celebrado su cuarta reunión anual la Academia Pontificia romana en los vastos locales de su palacio de la Cancillería, bajo la presidencia del profesor Lais.

Este centro católico se distingue por sus labores científicas, y en dicha reunión se expuso un resumen de sus trabajos, entre los que citaremos una importante Memoria del profesor Boccardi, sobre *Las variaciones de las latitudes y observaciones de Pino Torinese*; una nota de *Evacuaciones recíprocas*, del doctor Persiani; una publicación de Alfbrandi sobre *Cuestiones hidrodinámicas*, y otras análogas no menos curiosas é interesantes.

Después de la sesión pública, el cuerpo académico se reunió en sesión secreta para [illegible] socios.

Euzkadi egunkaria, 1914ko martxoaren 27ko alea.

IBARREKOLANDA BHI-K BATXILLERGO ARTISTIKOA MANTENDUKO DU

Ibarrekolanda BHI zentroko ikasleek, irakasleek eta gurasoek Hezkuntza Sailak 2022/23 urterako Arte Eszenikoen eta Arte Plastikoen eskaintza mantentzea lortu dute.

Testua: Pablo Martinez Canibe **Irudiak:** Ecuador Etxea

2022/23 ikasturtean, Arte Eszenikoen eta Arte Plastikoen batxilergoa eskainiko du Ibarrekolandak Gizarte Zientzien eta Humanitateen, Zientzia eta Teknologien eta Batxilergo Orokorraren modalitateekin batera. Izan ere, Hezkuntza Sailak Ibarrekolandan irakasten den batxilergo artistikoa hurrengo ikasturtean Txurdinaga Behekora lekualdatzeko erabakia hartu zuen aurreko astean. Albisteak ikasleengan "ulertezintasun eta ezinegon sentimendua" sorrarazi zuen eta orain arteko eskaintza bere horretan mantentzeko eskaria egin zuten komunikatu baten bitartez.

Erabakiaren aurkako elkarretaratzea ere egin zuten martxoaren 22an, eta hainbat ekintza eraman zituzten aurrera ikasle, irakasle eta gurasoen artean. Zuzendaritza taldeak hauei eskerrak eman nahi izan dizkie, "ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren defentsan erakutsitako inplikazio handia dela eta". Horrekin batera, Ibarrekolandako Institutuan urte askotan egindako lanaz "harro" agertu dira eta eguneroko konpromisoarekin eta lanarekin sendotzera animatu dituzte ikasleak.

Datorren ikasturterako eskaintza mantentzea lortu duten arren, negoziazioetan jarraituko dute Hezkuntza Sailak eta Ibarrekolanda BHIko hezkuntza-komunitateak. Komunikazio- eta negoziazio-bideak irekitzeko konpromisoa hartu dute bi aldeek, betiere etorkizuneko erabakiak hartzeko "prozedurak hobetzeko".

ERRONDOKO AUZO ETXEA, ‘EREINDAKO HAZIETATIK AUZOAN LORATUTAKO KIMUAK’

Testua: Jone Gartzia

Bosgarren urtemuga beteko du San Inazio eta Ibarrekolanda auzoetako Errondoko espazio autogestionatuak. Hamarkada erdi honetan, denetarik jazo da Auzo Etxean: okupazioak piztutako borroka sugarra, auzoan loratutako talde eta kolektibo anitzak, berpiztutako hamaika dinamika, desalojo arriskua, okupazioari erasoak... Baina, oztopoak oztopo, bost urte bizirik irauteko kemena bildu du Errondokok, eta hiru eguneko ospakizunarekin lorpenak goraipatzeko tartea hartuko du martxoaren 31tik apirilaren 2ra bitarte.

Lehen egunean, osteguna, Saniko militantziaren inguruko erakusketa grafiko bat egingo dute, hamarkadaka esperientzia ezberdinak bilduko dituena. Horrez gain, Itziar Moreno auzoko preso politikoak egindako lanak ere egongo dira ikusgai, eta ohi ez bezala, bere komikiak izango dira erakusketaren protagonistak.

Ostiralean egingo dute urteurrenaren ospakizuna, brindis, irakurketa eta guzti. Apirilaren lehenean beteko dira bost urte espazioa askatu eta birjabetu zutenetik, eta tarte horretan proiektuan parte hartu duten kide guztiak biltzea da asmoa, DJ Kastak eta afari goxoak lagunduta. Amaitzeko, larunbatak egun osoko egitaraua ekarriko du Errondokora. Txepetx Aisialdi Taldeak emango dio hasiera egunari, jarraian auzotik poteolinpiada bat egiteko. Bazkariaren eta bazkalondoaren ostean, musika emanaldiak (Katastro Sin Fe eta Pantx Records) eta hainbat sorpresa egongo direla iragarri dute. Informazio gehiagoren esperoan, datak gordetzeko deia zabaldu dute Errondokoko militanteek, ekitaldietan urteurreneko kamisetak salgai egongo direla iragartzearekin batera.

berbetan

IÑIGO LEKUErekin

Athleticeko jokalaria

“Txikitatik sustatzen duzun taldean



Umea zenetik baloiari ekin dio Iñigo Lekuek Danok Bat taldean. Bertan nerabezaro osoa igaro eta 18 urterekin Athleticeko hirugarren taldera heldu zen. Hiru denboraldi geroago ametsa bete eta Superkopa irabazi zuen lehen taldearekin egindako debutean. Hala ere, dena ez da futbola, lana beste zaletasun batzuengatik aldatzen baitu etxera heltzerakoan.

Testua: Pablo Martinez Canibe
Argazkiak: Ecuador Etxea

jokatzea ez zaio pertsona askori gertatzen”

Jokalarien egunerokoa entrenatzea eta jokatzea baino gehiago da?

Batzuetan badirudi entrenatu eta jokatu besterik ez dugula egiten. Baina batez ere partida hurbiltzen denean oso garrantzitsua da ondo elikatzea eta atseden hartzea. Ikusten ez den entrenamendua da, baina kontuan hartu beharreko faktorea.

Bizitza horretara ohituta zaude?

6-7 urterekin hasi nintzen jokatzen eta hasieran gutxiago entrenatzen nuen arren, maila batetik bestera igotzean zelaira gehiago joaten hasi nintzen. Basconiara heldu nintzenean, lehen taldeak entrenatzen zuen berdina entrenatzen nuen, egunero. Bilbao Athleticeko bigarren urtean bigarren mailara igo ginen eta denboraldiaurrea lehenengo taldearekin egingo nuela esan zidatenean, benetan hurbil ikusi nuen profesionala izateko aukera.

Prozesu hori azkarregi eman da?

Laburra eta intentsitate handikoa izan da. Ni ez naiz Athleticen maila baxuagoetan egon eta hori nabaritzen da. Basconiara 18 urterekin heldu nintzen eta hurrengo urtean Bilbao Athleticen nengoen jada. Ez du zerikusirik gazteagoa nintzenean bizi izan nuenarekin. Orain oso denbora gutxian maila asko gainditu ditut.

Goraldi horrek momentu zailak izan ditu, bi lesio gogor eta minutuak faltan. Nola egiten zaio aurre egoera horri?

Pertsona oso positiboa naiz. Hala ere, aurten minutu asko jokatzen ari naiz eta ezinbestean, izan ditudan bolada txarrekin gogoratzen naiz. Lesioak oztopo handia dira jokalariontzako. Taldeko bizitza egitera ohituta gaude eta lesionatzen garenean ordea, taldetik aldenduta entrenatu ohi dugu. Gainera, talde bidaietan etxean geratu behar izaten gara. Zorionez, lesionatuta egon izanak momentu onak balioan jartzeko aukera eman dit.

Espainiako Kopan porrot gogorrak jasan dituzue. Nola altxatzen da taldea egoera horietan?

‘Taldea’ egiten hain zuzen ere. Lagun kuadrilla gara eta argi daukagu gauzak ondo ateratzen ez direnean aukera bakarra guztiok batera aurrera jarraitzea dela. Gaur egungo futbolak ez digu arnasik hartzen uzten, onerako zein txarrerako. Bi egun barru irabazi beharreko beste partida bat izan ohi dugu eta sufritutako kolpeari buelta emateko aukera bezala ikusten dugu.

Finalak galdu bai, baina tituluak ere irabazi dituzue. Zer sentitzen da?

Izugarria da. Edozein zalek imajina dezake. Ni ere multzo horretan sartzen naiz. Bilbokoa naiz jaiotzetik eta klubeko bazkide

“Gaur egungo futbolak ez digu arnasik hartzen uzten, onerako zein txarrerako”

berbetan

IÑIGO LEKUErekin

▷▷ SAKONEAN

“Taldekideak baino, lagunak gara eta hori bizitza osorako da”

Laguntasuna aldagelatik haratago doa?
Aldagela partekatu dudan guztiekin harreman oso ona izan dut eta ez dut inorekin arazorik izan. Horrez gain, batzuekin askoz haratago doa. Orsai musika taldea horren berrespena da. Orduak eta orduak pasatzen ditugu batera eta entrenamendua amaitzerakoan ere, elkartu egiten gara. Taldekideak baino, lagunak gara eta hori bizitza osorako da.

Futboletik deskonektatzeko zeintzuk dira zure zaletasunak?
Lehen ikasketek betetzen zuten funtzio hura. Futbolari hobea izateko eta hurrengo eguneko entrenamenduan %100a emateko, etxera heltzen zarenean baloiaz ahaztea ezinbestekoa da. Orsaiko kideekin musika jotzea, ekonomiako gauzak ikastea, irakurtzea eta munduan gertatzen ari denaz informatzea edo sukaldatzea gustuko dut egunerokotik ihes egiteko.

Zer gauza txar dakar ezaguna izateak ?
Askotan ezaguna ez izatea gustatuko litzaidake. Beste edozein pertsonaren moduan nahi dudana egin eta esan ahal izatea gustatuko litzaidake. Izan ere, askotan, egiten dudanaren edo esaten dudanaren arabera, ondorioak izan ditzake edo modu jakin batean begira nazakete.

txikia nintzenetik... Athleticekin titulu bat irabaztea baino gauza handiagorik ez dago. Tituluak garrantzi gehiago edo gutxiago izan dezake, baina azken batean taldearekin eskuratutako titulua da.

Orokorrean nola kudeatzen da presioa?
San Mames beteta eta bizirik dagoenean, bultzada handia sentitzen dugu. Kanpoan jokatzen dugunean berriz, egoera ezberdina eta zailagoa da. Alabaina, ohituta gaude eta esperientziarekin hobetzen den zerbait da. Gainera aurten arlo hau lantzen ari gara bereziki, Marcelinok ekarritako psikologo batekin. Joserekin presioa lantzeko edo zelaian ondo sentitzeko lan egiten hasi gara.

Sare sozialik ez duzu erabiltzen, zergatik?
Ez zaizkit inoiz gustatu. Errespetatzen ditut, baina nire kasuan irabazten dudana baino gehiago galdu dezaket haiekin. Ez diet ezer positiborik ikusten eta hauetatik aldenduta mantentzea egin dezakedan onena da.

Noizbait ikusi duzu zeure burua Bilbotik kanpo?

Beti jokatu dut hemengo taldeetan eta kanpora joan behar izan direnekin hitz egiten dudanean, konturatzen naiz pribilegiatua naizela. Etxean nago eta gainera hurbilekoekin. Txikitatik sustatu duzun taldean jokatzea ez zaio pertsona askori gertatzen eta noski, espero dut horrela izaten jarraitzea. Bilbon mantentzea, maite ditudanak hurbil izatea eta Athleticen jolastea da gehien gustatzen zaidana.

Bilbokoa izateagatik erantzukizun gehiago sentitzen duzu?

Gaur egunera arte ez behintzat. Baina aldatu da. Kopako bi finalak galdu genituenetik eta Marcelino heldu zenetik erantzukizun gehiago sentitzen dut. Entrenatzaileak eta bere taldeak klubarekiko hainbeste sentipen izatea bi ahoko ezpata dela ikusarazi digute. Athleticen koloreak hainbeste sentitzea edo jendea zein herria hain errotuta egotea, motibazio dosi bat eman dezake baina beste alde batetik gainditu ahal gaituen erantzukizun bat ematen digu. Horrela da ezinbestean. Beti izorratuko nau galtzeak, eta Athleticekin bada askoz gehiago.

Zer onura dauka ezaguna izateak?

Neska-mutiko bati sinadura ematen diogunean haren emozio aurpegia ikustea guretzako ikaragarria da. Horrelako kontuek pertsona hobeak egiten gaituztela uste dut. Hala eta guztiz ere, alde onak dituen bezala bere alde txarrak ere baditu.

Pentsatu duzu zer egingo duzun futbola uzten duzunean?

Bai, askotan. Ikastea gustatuko litzaidake; zerbaitetarako prestatu nahi dut. Enpresa bat sortu edo ekonomiarekin zerikusia duen zerbaiten aritu. Argi daukadana da zerbait egingo dudala, ez naizelako geldirik egoteko gai.

Nola bururatu zitzaizuen Orsai musika taldea sortzea?

Denboraldiaurrean barre artean izan genuen berbaldi batetik aste batera, musika denda batera joan ginen norbera bere musika-tresna erostera. Bertan erabaki genuen musika talde bat sortuko genuela. Gainera elkarrekin musika jotzen ikasi genezakela deskubritu genuen. Batera joaten gara jotzera eta apurka-apurka hobetzen goaz. Gaur egun astero biltzen gara entseguak egiteko eta asko disfrutatzen ditugun momentuak dira.

Zer hizkuntza entzuten da aldagelan?

Hizkuntzak nahasten dira eta euskara asko entzuten da. Nire kasuan, elkarrizketak gaztelaniaz egiten ditut nire ama hizkuntza gaztelania delako. Gainera, hobeto azaltzen ditut nire ideiak gaztelaniaz. Hala ere, aldagelan euskaraz hitz egiten didatenean, euskaraz berba egiten dut.

Amaitzeko, jokalari bezala zein izan da zure momenturik bereziena?

Irabazitako tituluak, dudarik gabe. Aurreko urteko Superkopa batez ere. Hala eta guztiz ere, tristea iruditzen zait momentu hori aipatzea, zalegorik gabeko partida izan zelako, eta ondorioz, ezin izan genuen asko ospatu. Aurrekoan berriz, Bilbon ospatu genuenean kaleak jendez beterik zeuden eta benetan plazera izan zen. Baina 2021ekoa berezia izan zen. Horrelako zerbait bizitzeko gogoa nuen. Gainera finalerdietan Madril kanporatu eta finalean Barça irabazi genuen. Niretzako ahaztezina izango da.

“Irabazten dudana baino gehiago galdu dezaket sare sozialekin”

Hainbat eraso matxista gertatu dira azken asteetan Deustualdean

Emakume batek sexu-erasoa jasan zuen Arangoitin pasa den martxoaren 10ean, eta, horrez gain, Deustun ukituak egin zizkioten beste bati. Erasoak salatzeko Arangoitiko Kiskitiñak eta Deustuko Pare talde feministek kontzentrazio bateratua egin zuten martxoaren 15ean Egileor plazan. Ez zen hori izan talde feministek egindako mobilizazio bakarra, izan ere, jaietako bigarren asteburuan birritan eszenatokira igo eta 15 minutuko salaketa abiatu zuten txosnagunean. Kaleratutako oharrean honako hau irakur daiteke: "Deustuko jaien lehenengo asteburuan anitzak izan dira eman diren erasoak: ukituak, jipoiak, irainak, hitz lizunak... zehazki bi eraso izan dira publikoki salatu direnak baina argi utzi nahi dugu hauek ez direla bakarrak izan. Ez dira gertakari isolatuak, behin eta berriro errepikatzen diren zapalkuntzak baizik".

Eduardo Perez Nanclares zendu da, California gozotegiko fundatzailea

1972. urtean hartu zuen Madariaga Etorbideko 9. zenbakian kokatuta dagoen gozotegiaren gidaritza. Perez Nanclares joan den martxoaren 14an zendu zen 74 urte zituela. Californiaren berezitasunen artean, San Jose Txirlorak, txokolatedun tomateak edota arroz pastelak aurki daitezke. San Jose egunean, martxoaren 19an, Deustuko Jaietako alkatearen kalejiraren baitan, Bihotz Alai dantza taldeak geldialdia egin zuen bere gozotegiko atarian, hainbat urtetako lana eskertzeko asmoz.

Deustuko II. Herri krosa ospatu da

Martxoaren 12an ospatu zen Deustuko II. Krosa Munabi Kirol Klubak antolatuta. Arratsaldeko bostetan Deustuko Botikazar parketik abiatuta, zazpi kilometroko lasterketa egin zuten 300 parte hartzailek baino gehiagok. Emakumezkoetan Noemi Cano kantabriarrak lortu zuen garaipena 25:26ko denborarekin. Bigarren postua Vanessa del Riorentzat izan zen, 27:53ko denborarekin. Gizonezkoetan berriz, Super Amara Bat taldeko Ahmed Moujane heldu zen lehena helmugara 22:42ko markarekin. Bigarren postua Ismail Razgarentzat izan zen, 23:35ko markarekin.



Berbaizu Euskara Elkarteak amaiera eman dio udaberri kulturalari

Datorren martxoaren 31n ospatuko du Berbaizuk udaberri kulturalaren azken emanaldia Deustuko Erriberako Bizinahi auzogunean. Anita Parker eta Iheskide musika taldeek girotuko dute osteguneko arratsaldea 19:30etik aurrera. Otsailaren 17an eman zioten hasiera Udaberri Kulturala ekimenari Errondokon, Alaia Martin, Amets Arzallus eta Jone Uria bertsolarien saio batekin. Bi aste beranduago, Goizalde Landabaso izan zen Irakurleen Txokoan, Krakovia liburuaren inguruko zalantzak argitzen. Martxoaren 3an berriz, Mikeldi Dantza Taldearekin batera antolatutako dantzaldi erromeria ospatu zuten Botikazar parkean. Handik aurrera badira martxoan zehar antolatutako beste zenbait ekitaldi: umeentzako antzerkia Hizkuntza Eskolan, Jonu kantautorearen kontzertua Mullerrenean, mintzodromoa eta bertso saioa Deustuko Jaietan, besteak beste.



Urtea: 1905

Txema Luzuriaga

Hijos de Agustin Cortadi y Cia

Argazkian "Hijos de Agustin Cortadi y Cia" enpresa ikus daiteke. Aipatutako enpresa batez ere burdinaren eta metalen galdaketan zein ontzien konponketan aritzen zen. Agustin Cortadi 1826. urtean Astigarragan jaio arren, 1845. urtetik aurrera Deustun bizi izan zen. Honek errementaritzako, galdaragintzako eta ontziak konpontzeko tailerra sortu zuen. Datuen arabera, 1860tik 1907ra 35 ontzi uretaratu ziren Botikazarreko 5. zenbakian, gaur egun Euskaldunako zubia dagoen tokian, hain zuzen.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zein izan da Deustuko jaietako zure unerik gogokoena?

Aritz
San Inazio

Bi urteren ostean txosnagunean sartu nintzen momentua oso berezia izan zen.

Naia
Deustu

Bazkariak plazan. Berriro ere denok batzea eta jai giroa bizitzea itzela izan da.

Idoia
Deustu

Nire unerik gogokoena Arrozahotsaz lehiaketa izan zen, baita bazkalostean Lylo & 7KALE taldeak eskainitako kontzertua. Giro ezin hobea sortu zen Done Petri plazan eta faltan izango dut.

Mikel
Deustu

Larunbatetako bazkariak. Konpartsakideekin batera lehiaketa gastronomikoetan parte hartzea ikaragarria izan da.

Ibai
Deustu

Matxingorri konpartsan jaietako bigarren larunbatean egindako despedida oso hunkigarria iruditu zitzaidan.

Ainhoa
Deustu

Txupina eta bajadaren ostean txosnagunera heldu ginenean. Hor konturatu nintzen Deustuko jaiak normaltasunez ospatzeko unea heldu zela.

>> KORRIKA

TTIPI-TTAPA, TTIPI-TTAPA, BADATOR KORRIKA!

Apirilaren 6an iritsiko da Korrika Deustualdera. Asteazkenean arratsaldeko 19:28an Elorrietatik sartu eta San Inazio eta Ibarrekolandatik igaro ostean, Deustura helduko da 19:47an.

Testua: PREST!

Amurriotik abiatuko da Korrika martxoaren 31n eta zazpi lurraldeak zeharkatu ostean apirilaren 10ean helduko da lekukoa Donostiara. Edizio honen leloa Hitzekin izango da. Deustualdera apirilaren 6an helduko da eta hemendik Uribarrira egingo du salto. Auzoz auzo ibili ostean, gaueko 23:48an ailegatuko da Zorrotzara, ostean Barakaldorantza abiatuta.

Hitzorduaren harira, Deustualdeko Korrika Batzordea osatzen duten hainbat elkartek hilabete osoko egitaraua hasi zuten martxoaren 6an. Ordutik hainbat ekintza antolatu dituzte Deustualdeko txoko ezberdinetan. Azken aste honetan aurkezpen bi burutu dituzte, bata San Inazioko Euskararen Etxean, eta bestea berriz, Deustuko Erriberako Bizinahi auzogunean. Martxoaren 26an, larunbata, Plazara! dinamikaren baitan bertso saioa ospatuko dute Deustuko Gazte Lokalean eta Koldo Gezuraga, Bittor Altube, Unai Foruria eta Maider Altuna izango dira oholtza gainean.
Berbaizu Euskara Elkartearekin elkarlanean martxoaren 31n, ostegunarekin, Anita Parker eta Iheskide musika taldeen kontzertuak izango dira Deustuko Erriberako Bizinahi auzogunean, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Sarrerak Berbaizuren lokalean, Erribera tabernan eta Deustuko Herriko Tabernan egongo dira eskuragai martxoaren 24tik aurrera. Hurrengo egunean, apirilaren 1ean hain zuzen, San Inaziotik trikipoteoa antolatu du korrika batzordeak, 19:00etan Kabia tabernatik hasita.

Esan bezala apirilaren 6an, asteazkena, sartuko da Korrika Deustualdean. Goizeko 10:30ean Korrika Txikia abiatuko da Botikazarren, eta Levante plazan amaituko da eguerdiko 12:00ak aldera. Arratsaldean, txokolatada antolatu du Txepetx San Inazioko aisialdi taldeak Levanten bertan. Elorrietatik Deusturaino korrikan parte hartzeko gonbitea luzatu du Deustualdeko batzordeak. Asteazken iluntzean afaria ere antolatu dute Deustuko Herriko Tabernan.

Egitarauari itxiera emateko, apirilaren 10ean Donostiara joateko autobusa ere antolatuko dute. Izen ematea zabalik dago dagoeneko Matxintxu-Larrako AEK euskaltegietan.

APIRILAK 6, ASTEAZKENA

1	ELORRIETA	19:28	
2	DEUSTU	19:47	
3	URIBARRI	20:00	
4	TXURDINAGA	20:20	
5	OTXARKOAGA	20:26	
6	SANTUTXU	20:40	
7	ABUSU	21:00	
8	MIRIBILLA	21:30	
9	IRALA	21:36	
10	ERREKALDE	21:50	
11	ZAZPI KALEAK	22:13	
12	UDALETXEA	22:26	
13	PUPPY	22:35	
14	PLAZA BIRIBILA	22:53	
15	SAN MAMES	23:19	
16	BASURTUKO OSPITALEA	23:31	
17	ZORROTZA	23:48	

http:// sarekada

korrika.eus

aek 22.korrika

HITZEKIN

MATERIALA HEMEN SALGAI:

Korrika dendetan, AEKren euskaltegietan eta www.korrika.eus atarian.

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

UGERREN ZIKLO BERRIA

Bederatzi punk-rock abesti berri ditu Uger taldeak, azken hiru urteotako lanaren emaitza. Ikasten eta gozatzen jarraitzea, horixe taldearen xedea eta fedea.

uger.bandcamp.com



Testua: Lur Mallea

Argazkiak: Hodei Torres / Amaia Lekunberri Ansola / Uger musika taldea

Uger taldea "bost buru dituen izaki bat da". Horrela definitzen dute taldea Urik (bateria), Hazak (baxua), Fikerrek (gitarra), Borjak (gitarra) eta Gagok (ahotsa eta teklatua). Nork bere erara hautematen du errealitatea eta, beraz, ziklo bat ixtean, buruan dituzten "milaka gauza" biderkatzen dira Ugerren baitan. 2019an hasi zen boskotea abestiak konposatzen eta 2020an grabatu zituen El Submarino Recordsen. Diskoa, `Lehengo lepotik burua´ izenekoa, taldearen hirugarrena da, 2022an argitaratua, otsailean, DDT Banaketak eta Sua Industryren babespean. Atzerapenak badu azalpena. 2021ean, disko-fabrikak lanez lepo zeuden musika taldeen eskariei erantzun ezinik pandemiak eragindako hornidura faltagatik. Hori dela eta, luzapena. "Diskoa esku artean izateko gogo handia genuen", diote taldekideek, baina batez ere "ziklo bat ixteko gogoa". Izan ere, azken hiru urteotan bizi-esperientzia asko izan dituzte: "Nork bere gogoetarekin eta ikaskuntzarekin, bai banaka, bai taldean, eta azkenean gauzatu izana bururako check-point bat izan da, aurrera egiten eta taldean gozatzen jarraitzeko aukera ematen diguna, atzera gehiegi begiratu gabe. Ustekabeko energia txute bat". Aurreko bi diskoekin alderatuta, oraingo hau "modu profesionalagoan" grabatu dute Iñigo Escauriaza eta Borja Arbaizaren gidaritzapean. Arbaiza bera arduratu delarik nahasketak egiteaz. Sormen prozesuari dagokionez, aldaketak "etengabeak" dira Ugerren. Gauza berriak probatzea eta ahal den neurrian aldatzen jarraitzea gustatzen baitzaie. Horren adibide dira abestietan izan dituzten kolaborazioak (Julen Egia eta Miren Narbaiza koroetan eta Joseba B. Lenoir gitarrarekin) eta musika tresna berriak (Roberto Castro Boti zerra, didjeridu, flautapiño eta bibolinarekin).



Zortzi minutuko abestia

Bederatzi punk-rock abestiren artean arreta deitzen du diskoari izena ematen dion abestiak, Lehengo lepotik burua. Zortzi minutu pasatxoko iraupena du, eta ez, taldekideek ez dute arazorik "luzea" dela aitortzeko. "Agian ez zuzenean, baina gaur egun edonork zortzi minutu eskaintzea beste norbaitek egindakoari zeharkako kutsu politikoa duen jokaeratzat har dezakegu", diote. Identitatedolua du mintzagai abestiak, galera zehatz batetik hasita. Identitatearen galera horretan "norbanakotik kolektiborako bidea" jorratzen dute, "penaz beterik batzutan eta armak jasotzeko prest bestetan. Baina gorabehera horri eutsiz, lehengo lepotik baitaukagu burua". Miren Narbaiza eta Joseba B. Lenoir izan dituzte lagun. Ideia proposatu bezain laster animatu ziren parte hartzera, "ezagutzen ez zuten kanta batekin jolastera". Biak hurbildu ziren Markaidara grabaketara, "aurreko egunean kontzertua izanda ere". Kanta hortxe dago nahi duenarentzat. "Guk sekulako gozatua hartu genuen", gogoan dute, eta "partekatu genuen arratsalde hartatik ateratako emaitza da".

Esker onekoak eta zorrotzak

Esker onekoak izaki, ondoan izan dituztenak gogoan dituzte Ugerreko lagunek. Bereziki "gure ama eta amamak" eta, nola ez, "gure eszena lokal oparoa". Batik bat, Deustuko Gazte Lokala dute erreferentzia gisa. Horrelako leku autogestionatu bat etxetik gertu izatea "oso aberasgarria izan da eta bada" eurentzat. Era berean, "oso zorrotzak" dira lan propioekin. "Beharbada astunak ere bai alboan egonez gero", aitortzen dutenez. Oso zaila baita lan batekin pozik geratzea. "Beti dago zeozer. Bostetik bat gutxienez zerbaitekin ez da gustura geratuko". Baina zeozer horren faltak, aldi berean, erregai moduan funtzionatzen du "aurrera begirako kantak eta proiektuak egiteko, beti hobetzeko premiarekin". Eta hori taldea "fresko eta iraunkor" mantentzeko oso garrantzitsua da.

Gauza pila bat

Proiektu asko ditu Uger taldeak buruan. Besteak beste, zazpi kanta berriren grabaketa hasi berri du. "Nahiz eta oraindik ez dakigun zer egingo dugun kanta horiekin", taldekideen hitzetan. Eurak ari dira "autonomoki osorik grabatzen", pandemia garaian ikasitako Soinu Teoriarekin eta erositako mikrofonoekin. Aurreko batean, bateriak grabatzeko, lokaleko tresnak hartu eta baserri bateko kortan sartu ziren "kobazulo soinu" bila. Horrelakoetan "oso frikiak" direla aitortzeko ere ez dute arazorik. Zuzenekoetan hirugarren diskoko abestiak nagusituko diren arren, setlist-a sarri aldatuko dute, gustuko duten moduan. Baina bada gehiago. Interneten ohiko egin diren Tiny Desk live session bat grabatzea eta abestien bertsioak egitea ere pentsatu dute. Bistakoa denez, "gauza pilo bat" dute buruan. Bi urteren ostean, "dena egitera ausartu gara", diote. "Ea zer irteten den".

Testua: Ainhoa Maiztegi

OSASUNA BERE OSOTASUNEAN

Martxotik aurrera kolaboratzaile berria izango dugu PREST! aldizkarian. Bi hilerik behin, Ainhoa Maiztegi nutrizionista deustuarrak hainbat gomendio eta ideia ekarriko ditu gurera. Urte askotarako Ainhoa!

Osasuna hainbat dimentsiotako esparrua da, eta soilik era horretara ulertuta hurbildu ahal izango gara osasunaren kontzeptu orokorrera. Izan ere, mahai baten antzekoa da, lau hankadun mahai baten parekoa, alegia. Hanka bakoitzak betebehar bat dauka mahaiaren sostenguan, baina hanka guztiak daude elkarlanean helburu bat lortzeko: mahaia zutik mantentzeko, hots, osasuna bermatzeko.

Aipatutako oinarrien taldean honakoak daude; alde batetik, gestio emozionala eta osasun psikologikoa. Bestetik, ariketa fisikoak eta deskantsuak osatzen duten bikotea. Pertsonen arteko kalitatezko harremanak edo osasun soziala, mahai horren baitan daude ere bai. Eta, buka-tzeko, elikaduraren eta nutrizioaren presentzia.

Garrantzitsua da guztiek pisu berdina jasatea. Ondorioz, hanketako bat hautsiz gero, beste denek pisu gehiago sostengatu beharko dute. Izan ere, horrek epe luzera, zutik mantentzen diren zutabeen desgastea ekar dezakeelako. Beraz, hanka edo esparru guztien ongizatea behar-beharrezkoa da. Egoera bat (hainbat aukeren hautua, elikagaia, pertsona, …) osasuntsua den edo ez jakiteko, betaurreko integratiboak jantzi eta mahaiaren euskarri guztiak aztertu beharko genituzke. Errealitatea, aldiz, ez da honakoa. Elikagaien adibidearekin jarraituz, gizarteak nutrizionismo joera bakar batera bideratu gaitu.

Nutrizionismoak, elikagaiak nutrienteka sailkatu baino ez ditu egiten. Hots, ez ditu kontuan hartzen norbanakoaren helburu espezifikoak, elikagaiek sortarazten dizkiguten dastamen esperientziak, kultura ezberdinetara gerturatzea, usaimen oroitzapenak, edota norekin partekatzen ari garen elikagai hura.

Beharbada, elikagai bat osasungarria edo ez den eztabaida baten murgilduta ikusi duzu zeure burua inoiz. Beharbada, eztabaida horretan, elikagai hori bere interes nutrizionalaren arabera bakarrik sailkatu izan da. Baina,

aurretik aipatu bezala, sailkapen hori hutsa eta sinplizista da, ez baititu beste mahaiaren hankak kontuan hartzen.

Zorionez edo zoritxarrez, elikagai baten interes nutrizionala argitzeko gaitasuna daukagu: badakigu zenbait osagai nutrizionalki interesgarriagoak izan daitezkela beste batzuk baino. Hala eta guztiz ere, gogoratu horrek ez duela elikagai hori osasungarriagoa bilakatzen.

Ainhoa Maiztegi
@ainhoamaiztegi.nutricion

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

DAFNE GONZALEZ VILLAR
Emakumea eta sortzailea

Gure burua zalantzan jartzen

Nola ikusiko zenuke mundua gizon zuri europar batek kontatuko ez balu? Inoiz egin diozu galdera hau zeure buruari? Kontatu dizkiguten gertakari historikoak boteretsuak zein irabazleak baldin badira, zenbat ikuspegi baztertu ditugu konturatu gabe? Horregatik uste dut inperialismoa, patriarkatua eta kapitalismoa hankaz gora jarri nahi duten erreferenteak bilatu behar direla. Mendebaldetik kanpo dauden erreferenteak ere bai. Zuriak ez direnak.

Minna Salamiren *El otro lado de la montaña* liburua da pentsamendua deseraikitzeko erreferenteetako bat. Mendebaldean gauza guztietan eskegi dugu domina, baita gizarte-mugimendu askotan ere. #MeToo da horietako bat, adibidez. Eta errealitatea arrazoiketa kalkulagarria ez den beste modu batean azaldu ahalko balitz? Entzuten ez den gizarte batean hazi gara, sentimenduak erreprimituak diren gizartean, alegia.

Sentimendurik gabe, ezagutza ere zaharkituta geratzen da. Mendebaldeko herrialdeetan nola bizi garen ikusi besterik ez dago. Horregatik eta askoz kontu gehiagorengatik gomendatzen dizuet liburu hau. Gure pentsamendua deskolonizatzen hasteko. Haratago begiratzeko. Mugimendu askoren artean, mugimendu beltzek adibidez, erakutsi behar digutena entzuteko. Beti gaude garaiz munduaren beste aldean ahots indartsuak aurkitzeko. Denok gizakiak garela eta isildutako herriei ahotsa ematen hasi behar dugula ahaztu gabe. Beste herri batzuekiko elkartasun-ariketa bat egiteko. Irabazlerik eta galtzailerik gabe. Elkartasuna eta elkarzaintza aldarria martxan jartzen.

Doinua: Calle Melancolia

GARAZI KARRERA LOPETEGI
Elorri bertso-eskolako kidea

Morez estali ditugu
Deustu eta inguruak
han-hemen somatzen dira
indartsu mugimenduak
Borrokatu eta zaindu
aski badira galduak
egin ozen irrintzi ta
entzun gaitzala munduak

Martxoa igaro arren
Jarrai dezagun dardara
Lubaki ilunetatik
Fokope argietara
Plazarazi zapalkuntzak
Zabaldu lau haizetara
Batu gaitezen guztiok
Iraultza feministara!!

errigora

errigora.eus

martxoak 10 - 30

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Oinak lurrean

Bete ezazu despentsa *urte guztirako*

PREST!en babesleen artean saski 1 zozketan!

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

22. korrika aek

KULTURALA EUSKALDUNA

HITZEKIN

Deustualdeko Korrika Batzordea

Martxoak 6
LABURBIRA
laburmetraien emanaldia
Gaztetxean, 19:30

Martxoak 17
MINTZODROMOA 19:00
BERTSO SAIOA 20:00
Biak txosna-gunean, hockey pistan.

Martxoak 23
KORRIKA AURKEZPENA
Euskararen Etxean (San Ignazio), 10:30

Martxoak 24
KORRIKA AURKEZPENA
Bizinahin (Erriberan), 19:30

Martxoak 26
PLAZARA! bertso saioa
Deustuko Gazte lokalean 20:30ean
Koldo Gezuraga, Bittor, Altube, Unai Foruria , Maider Altuna
Gai-jartzailea: Maddi Askaiturrieta

Martxoak 31
KONTZERTUAK
ANITA PARKER 19:30
IHESKIDE 21:00
Bizinahin (Erribera), 10€ Sarrera (egunean bertan edo Berbaizun 24tik aurrera)

Apirilak 1
Trikipoteo Sanitik
19:00etan Kabian hasi eta 21:00 Errondoko bukatu.
Ostean, DJ eta afaltzekoa Errondokon bertan, urteurrena ospatzeko.

Apirilak 6
KORRIKA TXIKIA 10:30
Deustutik San Ignaziora. Botikazarren hasi eta Levante Plazan amaitu eguerdiko 12:00etan.

TXOKOLATADA 18:30
San Ignazioko Levante Plazan, Txepetxek antolatua. Merienda hartu ostean, denok Elorrietara Korrikari ongi etorri egitera.

19:30
Elorrietan hasita Deustutik irten arte edo...nahi beste, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, korrika!

HERRIKO TABERNAN AFARIA 21:30
Izena bertan eman

Apirilak 10
Denok Donostira!!
Autobuserako izen- ematea Deustuko Herriko Tabernan edo Matxintxu-Larrako AEK euskaltegietan.

korrika.eus